

## **ITZULPENA<sup>1</sup>**

---

Araua: 1889/2006/EE ERREGELAMENDUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2006ko abenduaren 20koa, munduan demokrazia eta giza eskubideak sustatzeko finantza-tresna ezartzen duena.

---

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

---

<sup>1</sup> Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da : «*Reglamento 1889/2006/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 20 de diciembre de 2006, por el que se establece un instrumento financiero para la promoción de la democracia y de los derechos humanos a escala mundial*» (*Diario Oficial de la Unión Europea, L 386/1 de 29/12/2006*)

*(Ekintza hauek aplikatzeko, argitaratu egin behar dira)*

**1889/2006 (EE) ERREGELAMENDUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA  
2006ko abenduaren 20koa,**

**munduan demokrazia eta giza eskubideak sustatzeko finantza-tresna ezartzen duena**

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR  
BATASUNeko KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzeko Tratataua, eta, bereziki,  
179. artikuluko 1. paragrafoa, eta 181 A artikuluko 2.  
paragrafoa aztertu dituzte,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Tratatuaren 251. artikulua araututako prozedurari  
jarraiki,

Hauek kontuan hartu dira:

(1) Erkidegoaren kanpo-laguntza eraginkorra eta  
gardena izateko, esparru berri bat proposatzen da,  
laguntzen plangintza egiteko eta haiek entregatzeko.  
Kontseiluaren 1085/2006 (EE) Erregelamenduak,  
2006ko uztailaren 17koak <sup>(2)</sup>, Aurreatxikitze  
Laguntza Tresna (IPA) ezartzen du, herrialde  
atxikigaietara eta atxikigai izan daitezkeen herrialdeei  
Erkidegoaren laguntza emateko. Europako  
Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1638/2006 (EE)  
Erregelamenduak <sup>(3)</sup>, 2006ko urriaren 24koak,  
Auzotasuneko eta Elkarketarako Europako Tresna bat  
ezartzen du. Tresna horrek laguntza zuzena ematen  
dio Europar Batasuneko auzotasun-politika  
europarrari. Europako Parlamentuaren eta  
Kontseiluaren 1889/2006 (EE) Erregelamenduak,  
garapenerako lankidetzaren tresna bat ezartzen du (4).  
1889/2006 (EE) Erregelamenduak herrialde  
industrializatuekin, eta errenta handiko beste  
herrialde eta lurralde batzuekin lankidetzan aritzeko  
finantza-tresna ezartzen du <sup>(4)</sup>. Europako  
Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1717/2006 (EE)  
Erregelamenduak, 2006ko azaroaren 15ekoak,  
egonkortasun-tresna ezartzen du <sup>(5)</sup>. Tresna horrek  
krisietan edo krisi hasberrietan laguntza emango du,  
bai eta munduko eta eskualdez gaindiko mehatxu  
jakinetan ere. Erregelamendu honek munduan  
demokrazia eta giza eskubideak sustatzeko finantza-  
tresna ezartzen du (Demokraziarako eta Giza

Eskubideetarako Europako Tresna). Tresna horren  
bidez laguntza eman ahal izango da, Gobernuak eta  
hirugarren herrialdeetako beste agintaritzak publikoak  
egindako akordioak edozein izanda ere;

(2) Europar Batasuneko Tratatuaren 6. artikuluko 1.  
paragrafoak arautzen du hauek direla Europar  
Batasunaren eratze-printzipioak: askatasuna,  
demokrazia, giza eskubideen eta oinarrizko  
askatasunen errespetua eta zuzenbide-estatu.  
Gainera, estatu kide guztiak bere egin behar dituzte  
printzipio horiek;

(3) Hauek dira Erkidegoaren garapen-politikaren, eta  
hirugarren herrialdeekiko ekonomia-, finantza- eta  
teknika-lankidetzaren helburu nagusiak:  
demokraziaren eta zuzenbide-estatuaren sustapena,  
garapena eta sendotzea; eta giza eskubideak eta  
oinarrizko askatasunak errespetatzea<sup>6</sup> Demokraziaren  
eta zuzenbide-estatuaren printzipioak errespetatzeko,  
sustatzeko eta babesteko konpromisoa funtsezko  
elementua da Erkidegoak hirugarren herrialdeekin  
hitzartutako harremanetan<sup>7</sup>;

(4) Finantza-tresna honen bidez, urrats bat emango da  
Garapenari buruzko Europako Deklarazioak (DPD)  
garapen-politikaren inguruan adierazitako helburuak  
lortzeko. Kontseiluak eta estatu kideen gobernuetako  
ordezkariak batera onartu zuten deklarazio hori,  
Kontseiluaren, Europako Parlamentuaren eta  
Batzordearen baitan, 2005eko abenduaren 20an <sup>(8)</sup>.  
DPD deklarazio politikoak nabarmentzen du behar-  
beharrezkoa dela, pobrezia murriztuko eta garapen  
iraunkorra bultzatuko bada, giza eskubideen babesa,  
governamendu ona eta demokratizazio-parametroak  
hobetzea, soilik horrela jokatuta egingo baita bidea  
Milurtekoko Garapen Helburuak (MGH) lortzeko;

(5) DPD deklarazioak berresten du genero-  
berdintasuna eta emakumeen eskubideak sustatzea  
oinarrizko giza eskubidea eta justizia sozialari  
dagokion gai bat dela, bai eta baliabide egokia ere,  
MGH guztiak lortzeko eta Kairoko Ekintza Programa

<sup>1</sup> Europako Parlamentuaren Irizpena, 2006eko  
abenduaren 12koa (Egunkari Ofizialean oraindik  
argitaratu gabea), eta Kontseiluaren Erabakia, 2006ko  
abenduaren 20koa.

<sup>2</sup> L 210 EO, 2006.7.31koa, 82.or.

<sup>3</sup> L 310 EO, 2006.11.9koa, 1.or.

<sup>4</sup> L 386 EO, 2006.12.29koa, 1. or.

<sup>5</sup> L 327 EO, 2006.11.24koa, 1.or.

<sup>6</sup> 2001eko maiatzaren 8ko Batzordearen Komunikazioa,  
«Europar Batasunak hirugarren herrialdeetan giza  
eskubideak eta demokratizazioa sustatzen duen  
zeregina» izenekoa.

<sup>7</sup> 1995eko maiatzaren 23ko Batzordearen Komunikazioa,  
Erkidegoaren eta hirugarren herrialdeen arteko  
akordioetan printzipio demokratikoen eta giza  
eskubideen errespetua sartzeari buruzkoa.

<sup>8</sup> C 46 EO, 2006.2.24koa, 1. or.

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

eta Emakumearen aurkako diskriminazio-mota oro desagerrarazteko Hitzarmena betetzeko. Horren ondorioz, Erregelamendu honek genero-osagai nabarmena du;

(6) Finantza-tresna honek erraztu egingo du Batasunaren atzerri- eta segurtasun-politikaren helburua betetzea. Zehazki, Europar Batasuneko Tratatuaren 11. artikuluko 1. paragrafoak ezarri zuen helburu hori, eta Europar Batasuneko artzedeek garatu. Azken horien gai-xedea da demokrazia eta zuzenbide-estatua garatzea eta sendotzea, eta giza eskubideak eta oinarritzko askatasunak errespetatzeko;

(7) Erkidegoak demokrazia eta zuzenbide-estatua garatzeko eta sendotzeko eta giza eskubideak eta oinarritzko askatasunak errespetatzeko egiten duen ekarpenaren oinarrian daude Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren printzipio orokorrak, Nazio Batuetako giza eskubideen alorrean ezarritakoak, eta giza eskubideen babeserako eskualde-tresnak ezarritakoak;

(8) Demokrazia eta giza eskubideak bikote banaezina dira. Aniztasun politikoa bermatzeko eta demokrazia-prozesuan sakontzeko, behar-beharrezkoa da, aurretiaz, adierazpen-askatasuna eta elkartzeko askatasuna bermatzea. Demokraziaren kontrola eta botereen banaketa, berriz, funtsezkoak dira sistema judizial independenteari eta zuzenbide-estatuari eusteko. Era berean, horiek guztiak ezinbestekoak dira, giza eskubideak eraginkortasunez babesteko;

(9) Nazioartean adostutako arauen argitara ezagutzen dira mundu osoan giza eskubideak. Hala ere, demokrazia, batik bat, estatuen baitan garatzen den prozesutzat hartu behar da. Prozesu hori betetzearen ardura gizarteko sektore guztiei dagokie, baina baita, bereziki, estatuetakako parlamentu demokratikoei. Izan ere, azken horien egitekoa da partaidetzako eta ordezkaritza printzipioak bermatzea, sentsibilizazio-lana egitea eta azken erantzukizuna beren gain hartzea. Lan zailak, eta, finean, etengabeko erronkak dira, bai giza eskubideen aldeko kultura eraikitzea eta iraunaraztea, bai jardun demokratikoa gaientzea herritarrekiko harremanetan. Lan hori egitea are presazkoagoa eta zailagoa da demokrazia berrietan. Horiek horrela, herritar guztiei dagokie, berariaz eta bereziki, erronka horri aurre egitea. Horrek ez du esan nahi, halere, nazioarteko komunitatearen konpromiso-mailak behera egin behar duenik;

(10) Aurrez adierazitako arazoei eraginkortasunez, gardentasunez, egokitasunez eta malgutasunez erantzungo bazaie, berariazko finantza-baliabideak eta berariazko finantza-tresna bat ezarri behar dira. Izan ere, erkidegoko bi arau hauei, Giza Eskubideen eta Demokraziaren aldeko Europar Ekimenaren (IEDDH) oinarri juridikoa osatu dutenei, 2006ko abenduaren 31n agortzen zaie beren indarraldia: batetik, 975/1999 (EE) Erregelamenduak, Kontseiluarenak, 1999ko apirilaren 29koak, demokrazia eta zuzenbide-estatua garatzeko eta sendotzekoak, eta giza eskubideak eta oinarritzko askatasunak errespetatzeko helburu orokorra lortzen

lagunduko duten garapenerako lankidetzarako Erkidegoko ekintzak aplikatzeko baldintzak ezartzen dituenak <sup>(1)</sup>; eta, bestetik, 976/1999 (EE) Erregelamenduak, Kontseiluarenak, 1999ko apirilaren 29koak, hirugarren herrialdeetan demokrazia eta zuzenbide-estatua garatzeko eta sendotzekoak, eta giza eskubideak eta oinarritzko askatasunak errespetatzeko helburu orokorra lortzen lagunduko duten eta garapenerako lankidetzakoak ez diren Erkidegoko ekintzak aplikatzeko baldintzak ezartzen dituenak, Erkidegoaren lankidetzarako garapen-politikaren esparruan <sup>(2)</sup>. Horrenbestez, aurrez adierazitako finantza-tresnak data horretatik aurrera eta bere kabuz lan egin behar du, eta kanpo-laguntzarako Erkidegoak dituen kideko tresnak osatzen eta sendotzen jarraitu behar du; hala nola, batetik, Afrikako, Karibeko eta Ozeano Bareko estatuak eta, bestetik, Europako Erkidegoa eta bere estatu kideak elkartzen dituen akordio ekonomikoak ezarritakoak <sup>(3)</sup>. Horixe bera egin behar du, halaber, laguntza humanitarioaren alorrean.

(11) Erregelamendu honen araberrako Erkidegoaren laguntza diseinatzen da, demokraziaren eta giza eskubideen alorreko EBko politikak betetzeko erabiltzen diren hainbat tresna osatzeko; hala nola: elkarriketa politikoa; kudeaketa diplomatikoak; eta finantza- eta teknika-lankidetzarako hainbat tresna, programa geografikoak eta tematikoak barne. Halaber, egonkortasun-tresnaren krisiarekin berariaz lotutako esku-hartzeak osatzen ditu.

(12) Aurreatikitzeko Laguntza Tresnari, Auzotasunerako eta Elkarterako Europako Tresnari, Garapenerako Lankidetzaren tresnari, AKBeko herrialdeekin egindako Cotonu-ko Akordioari, herrialde industrializatuekin eta errenta handiko beste herrialde eta lurralde batzuekin lankidetzan aritzeko tresnari, eta egonkortasun-tresnari jarraiki, egindako lankidetzaren testuinguruan herrialde bazkideekin neurri batzuk adostu dituzte. Horrez gainera, neurri horiek osatzeko, Erregelamendu honi jarraiki, Erkidegoak laguntza ematen du. Erregelamenduak munduan, eskualdeetan, nazioetan eta tokian-tokian giza eskubideekin eta demokratizazioarekin lotuta gertatzen diren arazoak lantzen ditu, gizarte zibilarekin batera. Halaber, hauek hartzen ditu barne: Estatuarekin zerikusirik ez duten norbanakoen edo kolektiboen gizarte-ekintzen mota guztiak eta demokrazia eta giza eskubideak sustatzen dihardutenak.

(13) Demokraziarekin eta giza eskubideekin lotutako helburuak kanpo-laguntzarako finantza-tresna guztietan gero eta gehiago barneratu behar dira. Erregelamendu honen araberrako Erkidegoaren

<sup>1</sup> L 120 EO 1999.5.8koa, 1. or. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2110/2005 (EE) Erregelamenduak (L 344 EO, 2005.12.27koa, 1. or.) aldatu zuen Erregelamendua.

<sup>2</sup> L 120 EO 1999.5.8koa, 8. or. Kontseiluaren 2110/2005 (EE) Erregelamenduak (EO L 344, 2005.12.27koa, 23. or.) aldatu zuen Erregelamendua.

<sup>3</sup> L 317 EO, 2000.12.15ekoa, 3. or.; L 385 EO, 2004.12.29koa, 88. or.

laguntzak, berriz, zeregin osagarria eta gehigarria izango du, Erregelamendua mundu osorako baita, eta jarduteko askatasuna baitu, gobernuetik eta hirugarren herrialdeetako agintaritzaren publikoetik. Horri esker, giza eskubideekin eta demokraziarekin lotutako gai baliagarrietan —hala nola, etorkinek giza eskubideak erabiltzea, eta asilo-eskatzailen eta herrialde baten barruan lekuz aldatutako eskubideak—, gizarte zibilarekin lankidetzan aritzea posible da. Horretarako, egoera aldakorrei aurre egiteko edo berrikuntza bultzatzeko malgutasuna eskaintzen da.

Halaber, Erkidegoari nazioartean berariazko helburuak eta neurriak antolatze eta haiei laguntza emateko ahalmena ematen dio, geografia- edo krisi-irizpideak kontuan hartu gabe. Ahalmen hori dela-eta, baliteke nazioz gairik planteamendua egin behar izatea edo Erkidegoan nahiz hirugarren herrialde jakin batzuetan ekintzak egitea. Ekintzak egiteko —besteak beste, hauteskundeak ikuskatzeko EBko misio independenteak— beharrezko esparrua eskaintzen du. Esparru horrek koherentzia politikoa, kudeaketarako sistema bateratua eta funtzionamenduarau komunak izan behar ditu;

(14) Erregelamendu honi jarraiki, demokrazia garatzeko eta sendotzeko jarduerak kontuan hartu beharko lituzke Parlamentu demokratikoak, eta laguntza emateko eta erreforma demokratikoko prozesuak aurrera eginazteko haien ahalmena. Beraz, Erregelamendu honi jarraiki, beharrezkoa da parlamentu nazionalen finantzazioa eskuratzeko aukera ematea, Erregelamenduen helburuak lortzeko beharrezkoa bada, proposatutako neurria Erkidegoaren kanpo-laguntzarako tresna baten bidez finantza daitekeenean izan ezik;

(15) «Kanpo-laguntzaren eremuan, Erkidegoak, Batzordeak ordezkatuta, eta estatu kideek izango duten koordinazio operatiboa sendotzeko artezpideek, 2001eko urtarrilaren 21ekoek, nabarmentzen dute beharrezkoa dela EBn kanpo-laguntzaren koordinazioa indartzea, munduan demokratizazioari laguntzeko, giza eskubideak eta oinarriko askatasunak errespetatzea sustatzeko arloetan. Batzordeak eta estatu kideek ziurtatu beharko lukete beren laguntza-neurriak osagarriak eta koherenteak izatea, ez gainjartzeko eta bikoizteko. Batzordeak eta estatu kideek beste emaila batzuekin neurri handiagoan koordinatzeko ahalegina egin beharko lukete. Garapenerako lankidetzari buruz Erkidegoak daukan politikak estatu kideen politiken osagarri izan beharko luke;

(16) Demokrazia eta giza eskubideak sustatzeko Erkidegoaren laguntzaren garrantzia eta nondik norakoa dela-eta, Batzordeak aldiro-aldi eta maiz informazioa trukatu beharko du Europako Parlamentuarekin.

(17) Batzordeak gizarte zibilaren ordezkari, eta beste emaila eta eragile batzuei kontsultatu behar die, programazio-prozesuaren dagokion fasean, norberaren ekarpenak errazteko, eta laguntza-jarduerak elkarrekiko ahal bezain osagarrienak izatea ziurtatzeko;

(18) Erkidegoak aurreikusi gabeko beharrei eta egoera berezietan azkar aurre egiteko gai izan behar du, egoera mota horiek sortzen diren herrialdeetan demokrazia eta giza eskubideak sustatzeko haren konpromisoaren sinesgarritasuna eta eraginkortasuna areagotzeko. Horretarako, Batzordeak estrategia-agiriak bere gain hartzen ez dituzten neurri bereziak hartzeko aukera izan behar du. Laguntza kudeatzeko tresna hori kanpo-laguntzarako gainerako finantza-tresnen baitan sartzen da;

(19) Era berean, Erkidegoak giza eskubideen defendatzaileen berariazko beharrei malgutasunez eta behar bezala aurre egiteko ahalmena izan behar du, lizitazioari lotu gabeko ad hoc neurrien bidez. Horrez gainera, Finantza-erregelamenduen xedapenak kontuan hartuta, legedi nazional aplikagarriaren arabera nortasun juridikoa ez duten erakundeek ere finantziarioa jaso dezakete.

(20) Erregelamendu honek finantza-hornidura bat ezartzen du 2007-2013 epealdirako, eta zenbateko hori erreferentziako zenbateko pribilegiatua izango da Aurrekontu Agintaritzarentzat; hala xedatzen du 2006ko maiatzaren 17ko erakunde arteko Akordioaren 37. paragrafoak, Europako Parlamentuaren, Kontseiluaren eta Batzordearen artean sinatutakoak, aurrekontuei buruzko diziplinari eta behar bezalako finantza-kudeaketari buruzkoak<sup>(1)</sup>;

(21) Ezinbestekoa da Giza Eskubideen eta Demokratizazioaren Europako Unibertsitate arteko Zentroarentzat finantza-laguntza bermatzea, eta giza eskubideei eta demokratizazioari buruzko Europako master programa bat eta EB-NBE beken programa bat eskaintzea, 2006aren bukaeran 2004/791/EE Erabakiaren indarraldia bukatu eta gerorako. Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2004ko apirilaren 21ean onartu zuten erabaki hori, eta haren bidez, Europako erakunde aktiboak sustatzeko Erkidegoaren ekintza-programa bat, eta hezkuntzaren eta prestakuntzaren alorrean, berariazko jarduerak laguntza ematea ezartzen da<sup>(2)</sup>. Erabaki hori finantziarioaren oinarri juridikoa izan zen;

(22) Hauteskundeak ikuskatzeko Europar Batasuneko misioek nabarmen eta arrakastaz laguntzen dute hirugarren herrialdeetako prozesu demokratikoak gauzatzeko<sup>(3)</sup>. Nolanahi ere, demokrazia sustatzea hauteskunde-prozesu hutsa baino zerbait gehiago da. Beraz, hauteskundeak ikuskatzeko EBko misioak egiteko erabili den zenbatekoak ez luke Erregelamendu honen esparruan erabili daitekeen finantziario osoaren zati neurrigabe bat izan behar.

(23) Bidezkoa da Erregelamendu hau betetzeko

<sup>1</sup> C 139 EO, 2006.6.14koa, 1. or.

<sup>2</sup> L 138 EO, 2004.4.30koa, 31.or.

<sup>3</sup> 200ko apirilaren 11ko Batzordearen Komunikazioa, laguntza- eta ikuskaritza-misioei buruzkoa.

# *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

neurriak onartzea, 1999ko ekainaren 28ko 1999/468/EE Erabakiarekin bat etorriz. Erabaki hori Batzordeari esleitutako betearazpen-eskumenak gauzatzeko prozedurak ezartzei buruzkoa da <sup>(1)</sup>.

(24) Proportzionaltasunaren printzipioa kontuan hartuta, Erregelamendu honen oinarritzko helburuak lortzeko beharrezkoa eta egokia da Demokraziarako eta Giza Eskubideentzako Europako Tresna bati buruzko arauak ezartzea.

Erregelamendu honek lortu nahi diren helburuak betetzeko beharrezkoa baino ez du egiten, Tratatuaren 5. artikulua 3. lerroaldean ezarritakoaren arabera.

ERREGELAMENDU HAU EMAN DUTE:

## I. TITULUA

### HELBURUAK ETA IRISMENA

#### 1. artikulua

#### Helburuak

1. Erregelamendu honek Demokraziarako eta Giza Eskubideetarako Europako Tresna ezartzen du. Tresna horri jarraiki, Erkidegoak laguntza emango du, Europar Batasunaren garapenerako lankidetzari buruzko eta hirugarren herrialdeekiko ekonomia-, finantza- eta teknika-lankidetzari buruzko Erkidegoaren politikaren baitan. Europar Batasunaren kanpo-politikarekiko koherentziaz emango da laguntza hori, eta demokrazia eta zuzenbide-estatua garatzen eta sendotzen lagunduko du, bai eta giza eskubideak eta oinarritzko askatasunak errespetatzen ere.

2. Hau izango da, berariaz, erregelamenduaren helburua:

a) giza eskubideak eta oinarritzko askatasunak errespetatu eta beteko direla bermatzea, Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalak, eta giza eskubideei buruzko eskualdeko eta nazioarteko beste tresna batzuek aldarrikatzen duten moduan; hirugarren herrialdeetan demokrazia eta erreforma demokratikoak erraztea eta sendotzea, batez ere gizarte zibilaren erakundeak emandako laguntzen bidez; giza eskubideen defendatzaileei, eta errepresioaren eta indarkeriaren biktimei laguntza eta elkartasuna eskaintzea; eta gizarte zibil aktiboa sendotzea, giza eskubideak eta demokrazia indartzeko;

b) giza eskubideekiko errespetua babesteko, sustatzeko eta kontrolatzeko zeregina duten nazioarteko eta eskualdeko esparruei laguntza ematea, eta haiek sendotzea. Halaber, demokrazia eta zuzenbide-estatua sustatzea, eta gizarte zibilaren zeregin aktiboa indartzea esparru horietan;

c) hauteskunde-prozesuekiko konfiantza indartzea, eta haien fidagarritasuna handitzea; batez ere hauteskundeak ikuskatzeko misioen bidez eta tokian tokiko gizarte zibilari laguntza emanez, prozesu horietan parte hartzen duten neurrian;

## 2. artikulua

### Aplikazio-eremua

1. 1. eta 3. artikulua aztertuta, Erkidegoaren laguntzek alor hauek jorratuko dituzte:

a) demokrazia parte-hartzailea eta errepresentatiboa sustatzea eta indartzea —parlamentu-demokrazia barne—, eta demokratizazio-prozesuen alde egitea; batik bat, gizarte zibilaren erakunde bidez. Bestek bestea, alderdi hauek landuko dira:

i) elkartzeko eta biltzeko askatasuna, pertsonen oztoporik gabe zirkulatzea, iritzi- eta adierazpen-askatasuna (arte- eta kultura-adierazpena barne), komunikabideen independentzia, eta informazioa oztoporik gabe eskuratzea bultzatzea. Halaber, askatasun horiek betetzea galarazten duten administrazio-oztopoak murrizteko neurriak bultzatzea, bai eta zentsuraren aurkako borroka ere;

ii) zuzenbide-estatua sendotzea. Horretarako, botere judizialaren independentzia sustatu, erreforma juridikoak eta instituzioei buruzko erreformak bultzatu, eta justizia eskuratu ahal izateko aukerak sustatuko dira;

iii) Nazioarteko Zigor Gortea, zigor-arloko nazioarteko auzitegiak, eta nazioz gaindiko justizia prozesuak sustatzea eta sendotzea, bai eta adiskidetzarako eta egia bilatzeko mekanismoak ere;

iv) demokrazia-ardura eraginkorra eta gardena lortzeko erreformei laguntza ematea. Halaber, segurtasun- eta justizia-sektoreetan ikuskapena egitea, eta ustelkeriaren aurkako neurriak sustatzea;

v) aniztasun politikoa eta ordezkaritza politikoa demokratikoa bultzatzea; eta herritarren parte-hartze politikoa sustatzea, batez ere baztertutako taldeena, toki, eskualde eta nazio mailako erreforma demokratikoko prozesuetan;

vi) gizonek eta emakumeek gizarte-, ekonomia- eta politika-bizitzan berdintasunez parte-hartzea sustatzea; eta aukera-berdintasuna, emakumeen parte-hartzea eta haien ordezkaritza politikoa bultzatzea;

vii) interes-talde adiskidetze baketsua errazteko neurriei laguntza ematea, giza eskubideen eta demokratizazioaren eremuetan konfiantza sendotzeko neurriak barne;

b) giza eskubideak eta oinarritzko askatasunak —Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalak, eta eskubide zibil, politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalen buruzko gainerako nazioarteko tresnak

<sup>1</sup> L 184 EO, 1999.7.17koa, 23. or. 2006/512/EE Erabakiak (L 200 EO, 2006.7.22koa, 11. or.) aldatu zuen Erabakia.

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

aldarrikatutakoak— sustatzea eta babestea, gizarte zibilaren erakundeen bidez, batez ere eremu hauetan:

i) heriotza-zigorren abolizioa; torturaren, tratu txarren, zigorren edo beste tratu anker eta laidogarri batzuen prebentzioa; eta torturaren biktimen errehabilitazioa;

ii) giza eskubideen defendatzaileei laguntza eta babesa ematea; pertsonak, taldeak eta gizarteko erakundeak mundu osoan barrena aitortutako giza eskubideak eta oinarriko askatasunak sustatzeko eta babesteko duten eskubideari eta ardurari buruzko Nazio Batuen Deklarazioaren 1. artikuluko xedatutakoari jarraiki.

iii) arrazismoaren, xenofobiaren eta edozein arrazoigatiko diskriminazioaren aurkako borroka; hala nola, sexua, arraza, kolorea, jatorri etnikoa edo soziala, ezaugarri genetikoak, hizkuntza, erlijioa edo sinismenak, iritzi politikoak edo beste mota bateko iritziak, gutxiengo nazional batekoa izatea, jabetza, jaiotza, ezintasun-egoerak, adina edo sexu-joera direla-eta egindako diskriminazioak;

iv) herri indigenen eskubideak, eta gutxiengoetako eta talde etnikoetako pertsonen eskubideak;

v) emakumeen eskubideak, Emakumeen aurkako diskriminazio-mota oro desagerrarazteari buruzko Hitzarmenean eta hitzarmen horren hautazko protokoloetan aldarrikatutako moduan, hauei aurre egiteko neurriak barne hartuta: emakumeen genitalen mozketa, nahitaezko ezkontzak, ohore-krimenak, emakumeen salerosketa eta emakumeen aurkako beste edozein indarkeria mota;

vi) haurren eskubideak, haurren eskubideei buruzko Hitzarmenean eta hitzarmen horren hautazko protokoloetan aldarrikatutako moduan, hauen aurkako borroka barne hartuta: haurren lana, salerosketa eta prostituzioa, bai eta haurrak errekrutatzea eta soldadu gisa erabiltzea;

vii) ezgaitasunak dituzten pertsonen eskubideak;

viii) oinarriko lan-arauak eta enpresen erantzukizun zibila sustatzea;

ix) heziketa, prestakuntza eta ikuskapena lantzea, giza eskubideen eta demokraziaren eremuan eta 1. bis paragrafoko vii) tartekian aipatutako eremuan;

x) gizarte zibileko organizazioei laguntza ematea tokiko, eskualdeko, nazioeko eta nazioarteko mailetan, giza eskubideak babesten, sustatzen eta defendatzen badituzte, eta 1. bis paragrafoko vii) tartekian aipatutako neurriak egiten badituzte;

c) giza eskubideen nazioarteko arau-esparrua finkatzea, justizia, zuzenbide-estatua eta demokraziaren sustapena. Bereziki:

i) giza eskubideei, justiziari, zuzenbide-estatuari eta demokraziari buruzko nazioarteko eta eskualdeko tresnei laguntza ematea;

ii) gizarte zibilaren, eta nazioarteko eta eskualdeko gobernuen arteko erakundeen arteko lankidetzaren sustatzea; eta giza eskubideen, justiziaren, zuzenbide-estatuaren eta demokraziaren eremuan, nazioarteko eta eskualdeko tresnen aplikazioa sustatzeko eta kontrolatzeko gizarte zibilaren jardueri laguntza ematea;

iii) nazioarteko eskubide humanitarioa bete dadin sustatzea;

d) hauteskunde-prozesuetan konfiantza areagotzea, prozesu horiek fidagarriagoak eta gardenagoak eginez. Horretarako, hauek egin behar dira batez ere:

i) hauteskundeak ikuskatzeko misioak bidaltzea Europar Batasunaren titularitatepean;

ii) hauteskunde-prozesuak kontrolatzeko beste neurri batzuk aplikatzea;

iii) gizarte zibilaren eskualdeko eta tokiko erakundeek hauteskundeak ikuskatzeko ahalmena gara dezaten laguntza ematea; eta hauteskunde-prozesuetan parte-hartzea eta konfiantza handitzeko ekimenak indartzea;

iv) Europar Batasuneko hauteskundeak ikuskatzeko misioen gomendioak aplikatzeko neurriei laguntza ematea, batez ere gizarte zibilaren erakundeen bidez.

2. Genero-berdintasuna, haurren eskubideak, herri indigenen eskubideak, ezintasunak dituzten pertsonen eskubideak sustatzea eta babestea, eta beste printzipio batzuk —hala nola, emantzipazioa, parte-hartzea, talde ahulak ez diskriminatzea— kontuan hartuko dira, beharrezkoa denetan, Erregelamendu honetako laguntza-neurri guztietan.

3. Erregelamendu honetan aipatutako laguntza-neurriak hirugarren herrialdeetako lurraldeetan bete behar dira; edo zuzenean lotuta egon behar dute hirugarren herrialdeetan gertatutako egoerekin, edo neurri globalekin edo eskualde mailako neurriekin.

### *3. artikulua*

#### **Erkidegoaren laguntzaren osagarritasuna eta koherentzia**

1. Erkidegoak erregelamendu honi jarraiki emandako laguntza koherentea izango da Erkidegoak garapenerako lankidetzari buruz ezarrita duen politika-esparruarekin eta, orobat, Europar Batasunaren kanpo-politikarekin. Halaber, laguntza hori osagarria izango da, bai Erkidegoak kanpo-laguntzarako finkatuak dituen antzeko tresna laguntzarekin, bai Afrikako, Karibeko eta Ozeano Bareko Estatu taldeko kideek Europako Erkidegoarekin eta bere estatu kideekin egindako elkartzeko-laguntzarekin. Erkidegoak Erregelamendu honi jarraiki, laguntza osagarria emango du, kanpo-laguntzarako tresnak aplikatzeko ekintza sendotzeko.

2. Batzordeak ziurtatuko du Erregelamendu honi jarraiki hartutako neurriak koherenteak izango direla Erkidegoaren politika estrategiko orokorraren esparruarekin, eta batez ere, lehen aipatutako tresnen helburuekin eta Erkidegoaren beste neurri egoki batzuekin.

3. Erkidegoaren eta estatu kideen laguntza-neurrien eraginkortasuna eta koherentzia areagotzeko, Batzordeak bere jardueren eta estatu kideen jardueren artean koordinazioa estua izatea bermatuko du, bai erabakiak hartzean, bai *in situ* egiten diren jardueretan. Koordinazio-lan hori egiteko, adierazitako erakundeek, laguntza-zikloaren fase guztietan, elkarri kontsultak egingo dizkiote aldiro-aldiro, eta sarri trukaturako dute informazio egokia, baita beste dohaintza-emaile batzuekin ere. Koordinazio hori, hala ere, lekuan bertan egin behar da, nagusiki.

4. Batzordeak Europako Parlamentuari informazioa emango dio, eta aldiro-aldiro ikuspuntuak elkar trukaturako dituzte.

5. Batzordea gizarte zibilarekin maila guztietan aldiro-aldiro informazioa trukatzeko saiaturako da, eta, arlo horretan, aintzat hartuko ditu hirugarrenengo herrialdeak ere.

## II. TITULUA

### ERREGELAMENDUA BETETZEA

#### 4. artikulua

#### **Aplikazio-esparru orokorra**

Erkidegoak Erregelamendu honi jarraiki emandako laguntza neurri hauen bidez emango da:

- a) estrategia-agiriak eta haien berrikuspenak, unean-unean behar denari erreparatuta;
- b) urteko ekintza-programak;
- c) neurri bereziak;
- d) *ad hoc* neurriak.

#### 5. artikulua

#### **Estrategia-agiriak eta haien berrikuspenak**

1. Estrategia-agiriak alderdi hauek zehaztuko dituzte: Erkidegoak baliatuko duen estrategia, Erregelamendu honi jarraiki eman beharreko laguntzak emateko; Erkidegoaren lehentasunak; nazioarteko egoera eta kide nagusien jarduerak. Estrategia koherentea izango da erregelamendu honen xedearekin, helburuekin, aplikazio-eremuarekin eta printzipioekin.

2. Estrategia-agirietan hauek ezarriko dira:

Erkidegoak finantzatzeko hautatutako lehentasunezko eremuak, berariazko helburuak, espero diren emaitzak eta errendimendu-adierazleak. Halaber, gutxi gorabeherako finantza-esleipena adieraziko da, bai mundu osoari dagokionez, bai lehentasunezko eremuei dagokienez, eta zerrenda gisa adierazi ahal izango da, beharrezkoa denean.

3. 17. artikuluan, 2. paragrafoan ezarritako prozedurari jarraiki onartuko dira estrategia-agiriak eta haien edozein berrikuspen edo luzapen. Erregelamendu honen balio-denboran baino ez dute balioko.

Estrategia-agiriak epe ertainean berrikusiko dira, edo ad hoc beharrezkoa balitz.

4. Haien lankidetzaz-jardueren arteko osagarritasuna pizteko programazio-prozesuaren lehen faseetan, Batzordeak eta estatu kideek informazioa elkar trukaturako dute, elkarri kontsultatuko diote, eta gainerako emailei eta eragilei kontsultatuko diete, gizarte zibilaren ordezkarietara barne.

#### 6. artikulua

#### **Urteko ekintza-programak;**

1. Zazpigarren artikulua araututakoa betetzeko izango bada ere, Batzordeak 5. artikuluan aipatutako estrategia-agirietan eta berrikuspenetan oinarritutako urteko ekintza-programak onartuko ditu.

2. Urteko ekintza-programek hauek zehaztuko dituzte: lortu nahi diren helburuak, esku-hartzerako eremuak, espero diren emaitzak, kudeaketa-prozedurak eta aurreikusitako finantziarioaren zenbateko osoa. Iraganean, Erkidegoak laguntza ematen izandako esperientzia kontuan hartu dute. Era berean, eragiketen deskribapena, eragiketa bakoitzari esleitutako zenbatekoei buruzko azalpen bat eta eragiketarako gauzatzeko gutxi gorabeherako egutegia bilduko dituzte ekintza-programek.

Helburuak kuantifikagarriak izango dira eta betetzeko epeak zehaztuko dituzte.

3. Urteko ekintza-programak eta haien edozein berrikuspen edo luzapen, 17. artikuluan, 2. paragrafoan ezarritako prozedurari jarraiki onartuko dira.

Ekintza-programei eginiko aldaketan ondorioz, programa horiek egiteko esleitutako zenbateko osoa %20 baino gutxiago igotzen bada, Batzordeak onartuko ditu aldaketa horiek eta 17. artikuluan, 1. paragrafoan aipatutako Komiteari jakinaraziko dizkio.

4. Baldin eta ez bada oraindik urteko Ekintza-programa bat onartu, Batzordeak urteko Ekintza-programa batean aurreikusi gabeko neurriak onartu ahal izango ditu, 5. artikuluan aipatutako estrategia-agiriak oinarri hartuta eta salbuespen gisa. Horrelakoetan, urteko ekintza-programak egiteko zehaztu diren arau eta prozedura bereberei jarraitu

behar zaie.

#### *7. artikulua*

##### **Neurri bereziak**

1. 5. artikulua araututakoa betetzeko izango bada ere, aurrekusi gabeko eta behar bezala arrazoitutako beharrak edo ezohiko egoerak baldin badaude, Batzordeak estrategia-agiriak bere gain hartzen ez dituzten neurri bereziak onartu ahal izango ditu.

2. Neurri bereziak hauek zehaztuko dituzte: lortu nahi diren helburuak, jarduera-sektoreak, espero diren emaitzak, kudeaketa-prozedurak eta finantziazioaren zenbateko osoa.

Era berean, finantzatu beharreko eragiketen deskribapena, eragiketa bakoitzari esleitutako zenbatekoei buruzko azalpen bat eta eragiketarako gauzatzeko gutxi gorabeherako egutegia adieraziko dituzte.

Halaber, emaitza-adierazleak zehaztuko dituzte, neurri bereziak betetzean kontrolatu beharrekoak.

3. Neurri horien kostua 3.000.000 eurokoa edo gehiagokoa denean, 17. artikuluko 2. paragrafoan ezarritako prozedurari jarraiki onartuko ditu Batzordeak.

4. Neurri bereziak 3.000.000 eurotik beherako kostua badute, neurria onartzeko erabakia hartu eta hamar laneguneko epean, Batzordeak Europako Parlamentuari eta estatu kideei neurriak bidaliko dizkie haien berri izan dezaten.

#### *8. artikulua*

##### **Laguntza-neurriak**

1. Erkidegoak Erregelamendu hau betetzean erabakitzen duen finantziazioaren bidez, gastu hauek ordain daitezke: Erregelamendu hau zuzenean aplikatzeko eta bere helburuak betetzeko beharrezkoak diren prestakuntza-, jarraipen-, berrikuspen-, auditoria- eta ebaluazio-jarduerekin lotutako gastuak; hala nola, azterketak, bilerak, informazio-, sentsibilizazio-, prestakuntza- eta argitalpen-jarduerak, eta gizarte zibileko kideentzako prestakuntza- eta hezkuntza-neurriak. Halaber, beste gastu hauek ere ordaindu ahal izango ditu: informazioa trukatzeko informatika-sareekin lotutako gastuak, eta programa kudeatzeko beharrezko administrazio- eta teknika-laguntzekin lotutako gastuak.

Era berean, kasuan kasu, laguntza-neurriak Erkidegoak direla nabarmentzeko egiten diren ekintzen gastuak, eta herrialde interesdunetan, oro har, publikoari laguntza-neurrien helburuak eta emaitzak azaltzeko egiten diren jardueren gastuak ere ordain ditzake.

2. Horrez gainera, Erkidegoaren finantziazioak

Batzordearen ordezkartzen gastuak ere ordainduko ditu, Erregelamendu honi jarraiki finantzatutako eragiketarako kudeatzeko beharrezko euskarri administratiboa izateko.

3. Batzordeak estrategia-agiriak bere gain hartzen ez dituzten laguntza-neurriak onartuko ditu, 5. artikuluan araututakoaren arabera, eta 7. artikuluko 3. eta 4. paragrafoetan ezarritakoari jarraiki.

#### *9. artikulua*

##### **Ad hoc neurriak**

1. 5. artikulua araututakoa betetzeko izango bada ere, Batzordeak, ad hoc izaerako irizpide bat hartuz, giza eskubideen defendatzaileei zenbateko txikiko diru-laguntzak esleitu ahal izango dizkie, premiazko babes-neurriak hartu behar badira.

2. Batzordeak aldiro-aldiro informatu beharko ditu Europako Parlamentua eta estatu kideak onartutako ad hoc neurriei buruz.

#### *10. artikulua*

##### **Hautagarri izateko bete behar diren irizpideak**

1. 14. artikulua araututakoa betetzeko izango bada ere, Erregelamendu honi jarraiki, eta 6., 7. eta 9. artikuluetan aipatutako laguntza-neurriak betetzeko, erakunde hauek finantziazioa jaso ahal izango dute, jarduera-modu independentea eta arduratsua badarabilte:

a) gizarte zibileko organizazioak, irabazi-asmorik gabeko gobernuz kanpoko erakundeak eta fundazio politiko independenteak barne, komunitateak, agentziak, sektore pribatuko irabazi-asmorik gabeko instituzioak eta erakundeak, eta tokiko, eskualdeko eta nazioarteko sareak;

b) tokiko, nazioarteko, eskualdeko eta nazioarteko sektore publikoko agentziak, instituzioak, erakundeak eta sareak, irabazi-asmorik gabekoak;

c) nazioarteko, eskualdeko eta nazioarteko parlamentu-erakundeak, tresna honen helburuak lortzeko beharrezkoa denean, eta, betiere, kanpo-laguntzarako Erkidegoaren kideko tresna baten eremuan finantzatu badaiteke proposatutako neurria;

d) nazioarteko eta eskualdeko gobernu arteko organizazioak;

e) pertsona fisikoak, Erregelamendu honen helburuak lortzeko beharrezkoa denean.

2. 1. paragrafoan aipatu gabeko beste erakunde edo eragile batzuk finantzatu ahal izango dira, salbuespen gisa eta behar bezala arrazoituta dagoenean, baldin eta Erregelamendu honen helburuak betetzeko beharrezkoa bada.



### 11. artikulua

#### Kudeaketa-prozedura

1. Erregelamendu honen arabera finantzatutako laguntza-neurriak, Kontseiluaren 1605/2002 Erregelamenduari (EE, Euratom) eta haren edozein berrikuspeni jarraiki gauzatuko dira. 2002ko ekainaren 25ean onartu zen erregelamendu hori, eta Europako Erkidegoen aurrekontu orokorrari aplikatzen zaion finantza-erregelamendua onartu zen horren bidez <sup>(1)</sup>. Finantzatutako laguntzen kudeaketa zentralizatua izango da, edo nazioarteko erakundeekin batera egingo da, Erregelamendu horren 53. artikuluko 1. paragrafoan ezarritakoari jarraiki.

2. Lagundutako finantziarioaren alde egiten den kasuetan eta behar bezala arrazoitutako beste kasu batzuetan, 1605/2002 Erregelamenduko (EE, Euratom) 54. artikuluari jarraiki, Batzordeak eskumen publikoko lanak Erregelamendu horren 54. artikuluko 2. paragrafoko c) idatz-zatian aipatutako erakundeen esku utzi ahal izango ditu, batez ere aurrekontuak betetzeko lanak.

### 12. artikulua

#### Aurrekontu-konpromisoak

1. Batzordeak 6., 7., 8. eta 9. artikuluei jarraiki hartutako erabakien gain onartuko dira aurrekontu-konpromisoak.

2. Erkidegoaren finantziarioak forma juridiko hauek izan ditzazke:

a) diru-laguntzen akordioak, diru-laguntzen erabakiak edo ekarpen-akordioak;

b) 1602/2002 Erregelamenduaren (EE, Euratom) 54. artikuluari jarraiki egindako akordioak;

c) eskurapen-kontratuak;

d) lan-kontratuak.

### 13. artikulua

#### Finantziario-motak

1. Erkidegoaren finantziarioa mota hauetakoa izan daiteke:

a) proiektuak eta programak;

b) 10. artikuluko 1. paragrafoko d) idatz-zatian aipatutako nazioarteko eta eskualdeko gobernu arteko erakundeek aurkeztutako proiektuak finantzatzeko diru-laguntzak;

c) 9. artikuluan, 1. paragrafoan aurreikusitako premiazko babes-neurriak finantzatzeko, diru-laguntza txikiak ematea giza eskubideen defendatzaileei, 2. artikuluko 1. paragrafoko b) idatz-zatiaren ii) tartekiaren arabera;

d) Nazio Batuetako Giza Eskubideen aldeko goi-komisarioaren bulegoko eragiketa-kostuak finantzatzeko diru-laguntzak;

e) Eskubideen eta Demokratizazioaren Europako Unibertsitate arteko Zentroaren (EIUC) funtzionamendu-kostuak sostengatzeko diru-laguntzak ematea, batez ere giza eskubideei eta demokratizazioari buruzko master europarren programa sostengatzeko. Halaber, EB-NBERen beken programa, hirugarren herrialdeetako herritarrei erabat irekia, eta giza eskubideak eta demokratizazioa sustatzen duten hezkuntza-, prestakuntza- eta ikerketa-jardueren funtzionamendu-kostuak babesteko;

f) nazioarteko funtsei ekarpenak egitea, hala nola, nazioarteko edo eskualdeko erakundeek kudeatutako funtsei;

g) hauteskundeak ikuskatzeko Europar Batasuneko misioak eraginkortasunez aplikatzeko giza baliabideak eta baliabide materialak;

h) 1605/2002 Erregelamenduaren (EE, Euratom) 88. artikuluko arabera kontratu publikoak.

2. Erakunde hauek Erregelamendu honi jarraiki finantzatutako neurriak aldi berean finantzatzeko aukera dute:

a) Estatu kideak eta beren tokiko erakundeak, eta batez ere, haien agentzia publikoak eta paraestatalak;

b) beste herrialde emaile batzuk, eta batez ere haien erakunde publikoak eta paraestatalak;

c) nazioarteko eta eskualdeko gobernu arteko erakundeak;

d) elkarteak, enpresak, beste erakunde eta negozio pribatuak, sindikatuak, federazio sindikalak eta estatuz kanpoko beste eragile batzuk.

3. Lagundutako finantziario paraleloa egiten bada, proiektua edo programa argi eta garbi identifikatzen diren hainbat osagaitan bereiziko da, eta osagai bakoitza bazkide jakin batek finantzatuko du, gehienez ere haren azken erabilera identifikatu badaiteke. Baterako aldi bereko finantziarioa egiten bada, baterako finantzaketa egitea eta bildutako baliabideak izatea errazten duten bazkideen artean ordainduko dute proiektuaren edo programaren kostu osoa. Hala, proiektuaren edo programaren parte gisa hasitako ekintza jakin batek ere ezingo du finantziario-iturria identifikatu.

4. Lagundutako finantziario bateratua egiten bada, Batzordeak 2. paragrafoko a), b) eta c) idatz-zatietan

<sup>1</sup> L 248 EO, 2002.9.16koa, 1.or.

aipatutako erakundeen izenean jaso eta kudeatu ahal izango ditu funtsak, neurri bateratuak gauzatu ahal izateko. Funts horiek esleitutako diru-sarrera gisa erabiliko dira, 1605/2002 Erregelamenduaren (EE, Euratom) 18. artikuluari jarraiki.

5. Lagundutako finantziarioa egiten bada eta behar bezala arrazoitutako beste kasu batzuetan, Batzordeak eskumen publikoko lanak, batez ere aurrekontuak betetzekoak, 1605/2002 Erregelamenduaren (EE, Euratom) 54. artikulua 2. paragrafoko c) idatz-zatian aipatutako erakundeen esku utzi ahal izango ditu.

6. Erkidegoaren laguntza ezingo da erabili zergak, muga-zergen eskubideak eta herrialde onuradunetan beste tasa batzuk ordaintzeko.

#### 14. artikulua

##### **Partaidetzarako arauak eta jatorri-arauak**

1. Erregelamendu honi jarraiki finantzatutako eskurapen-kontratuen eta diru-laguntzen esleipenetan, honako hauek parte har dezakete: Erkidegoko estatu kide bateko, edo atxikitze-bidean dauden herrialdeetako, Europako Erkidegoak aitortutako herrialde atxikigai ofizialeko edo Europako Esparru Ekonomikoaren estatu kide bateko pertsona fisiko guztiak eta herrialde horietan ezarritako pertsona juridikoak.

Halaber, Erregelamendu honi jarraiki finantzatutako eskurapen-kontratuen eta diru-laguntzen esleipenetan, garapen-bidean dauden herrialdeetako pertsona fisiko nazional guztiek (edo herrialde horietan bizi diren pertsona juridikoei) parte hartu ahal izango dute, Ekonomia Lankidetzaren eta Garapenaren Antolaketa Garatzen Laguntzeko Batzordeak (OCDE/CAD) zehaztutakoaren arabera. Horrez gainera, Erregelamendu honen arabera hauta daitezkeen pertsona fisikoak edo juridikoak ere parte har dezakete. Garapen-bidean dauden herrialdeen zerrenda egingo du OCDE/CADek, eta Batzordeak zerrenda hori argitaratu eta eguneratuko du, zerrenda horren aldiroko berrikuspenen arabera, eta horren guztiaren berri emango dio Kontseiluari.

2. Erregelamendu honi jarraiki finantzatutako eskurapen-kontratuen eta diru-laguntzen esleipenetan, edozein herrialdeetako pertsona fisiko nazional guztiek (edo herrialde horietan ezarritako pertsona juridikoei) ere parte har dezakete, 1. paragrafoan aipatutako herrialdeetakoak izan ezik. Paragrafo horretan, elkarrekiko eskuragarritasun printzipioa ezarri da azken herrialde horiekiko kanpo-laguntzarako. Elkarrekiko eskuragarritasuna emango da, baldin eta laguntzetarako hautagai izateko aukera berdinak ematen bazaizkie estatu kideei eta herrialde onuradunei.

Elkarrekiko eskuragarritasuna ezartzeko, berariazko erabaki bat hartu behar da, herrialde jakin batekiko edo eskualde batean biltzen den herrialde-multzotatik. 17. artikuluko 2. paragrafoan ezarritako

prozedurari jarraiki hartuko da erabaki hori, eta gutxienez urte bateko epealdian egongo da indarrean.

3. Erregelamendu honi jarraiki finantzatutako kontratu publikoen eta diru-laguntzen esleipenetan, nazioarteko erakundeek era parte har dezakete.

4. 1., 2. eta 3. paragrafoetako xedapenek ez dute eragotziko erakunde-kategorien parte-hartzea, baldin eta izaera edo kokapenagatik aurreikusitako ekintzaren helburuekin bat badatoz.

5. Erkidegoaren kontratazio-arauetan ezarritako baldintza kualitatiboak eta finantza-baldintzak beteta, adituak edozein nazionalitatekoak izan daitezke.

6. Erregelamendu honen arabera finantzatutako neurriak oinarri zentralizatu baten bidez, edo, zeharka gauzatzen badira —Erkidegoaren organo espezializatuetan, sektore publikoko nazioarteko edo nazioarteko erakundeetan, edo zerbitzu publikoko misioa duten eskubide pribatuko erakundeetan eskuordetzearen bidez, 1605/2002 Erregelamenduaren (EE, Euratom) 54. artikulua 2. paragrafoko c) idatz-zatian ezarritakoari jarraiki—, Erkidegoaren kontratuak eta diru-laguntzak lor ditzaketen herrialdeetako pertsona fisiko nazionalak parte hartu ahal izango dute kontratazio publikoko prozeduretan eta erakunde kudeatzaileen diru-laguntzen esleipenetan, aipatutako artikulua 1. paragrafoan ezarritako printzipioei jarraiki. Era berean, erakunde kudeatzailearen arauak eta prozedurari jarraiki hauta daitezkeen beste edozein herrialdeetako pertsona fisiko nazionalak, edo herrialde horietan bizi diren pertsona juridikoei ere parte hartu ahal izango dute.

7. Erkidegoaren laguntzek nazioarteko erakunde bidez egindako eragiketa bat babesten duten orotan, hitzartutako prozedura egokietan hauek parte hartu ahal izango dute: artikulua honen arabera, hautagarri diren pertsona fisiko eta juridiko guztiak; eta erakunde horren arauen arabera, hautagarri diren pertsona fisiko eta juridiko guztiak, emailei tratua eskaintzeari arreta handia jarritz. Hornidurei, materialei eta adituei dagokionez, arau berak aplikatuko dira.

8. Eskualdeko erakunde batekin edo estatu kide batekin elkarrekikotasun-printzipioaren bidez lotutako hirugarren herrialde batek aldi berean finantzatutako eragiketa bat Erkidegoaren finantziarioak babesten duen orotan, hitzartutako prozedura egokietan hauek parte hartu ahal izango dute: artikulua honen arabera, hautagarri diren pertsona fisiko eta juridiko guztiak; aipatutako hirugarren herrialdeko, eskualdeko erakunde edo estatu kideko arauak jarraiki, hautagarri diren pertsona fisiko eta juridiko guztiak. Hornidurei, materialei eta adituei dagokionez, arau berak aplikatuko dira.

9. Erregelamendu honi jarraiki eskuratutako hornidura eta material guztiak Erkidegokoak izan beharko dute, edo 1. eta 2. paragrafoan zehaztutakoaren arabera hautagarri den herrialde batekoak. Erregelamendu honi dagokionez, «jatorria»

hitzaren definizioa bat dator muga-zergetarako jatorri-arauei buruz Erkidegoko legedian adierazitako definizioarekin.

10. Behar bezala arrazoitutako kasuetan, Batzordeak baimendu ahal izango du ekonomia tradizionala duten eta hurbileko herrialdeekin merkataritza-harremanak edo lotura geografikoak dituzten herrialdeetako edo beste hirugarren herrialde batzuetako pertsona fisikoak eta juridikoak parte hartzea, bai eta beste jatorri bateko hornidurak eta materialak eskuratzea eta erabiltzea ere.

11. Salbuespenak arrazoitzeko, beharrezkoa izango da larritasun handiko arrazoen ondorioz, herrialde interesdunetako merkatuetan produkturik eta zerbitzurik ez izatea, edo hautagarritasun-arauek proiektu, programa edo jarduera bat egitea eragozte.

12. Nazioarteko oinarriko lan-arauek bete behar dituzte kontratuen esleipendunek; hala nola, Lanaren Nazioarteko Erakundearen oinarriko lan-arauek, elkartzeko eta negoziazio kolektiboko hitzarmenak, eta nahitaezko eta derrigorrezko lana desagerrarazteari, laneko eta jardueretako diskriminazioa deuseztatzeari, eta haurren lana abolitzeari buruzko hitzarmenak.

#### 15. artikulua

##### **Erkidegoaren finantza-interesen babesa**

1. Erregelamendu hau aplikatzearen ondorioz, egindako edozein akordioak edo kontratuk Erkidegoaren finantza-interesak babestuko dituela ziurtatzen duten xedapenak izan beharko ditu, batez ere iruzurrari, ustelkeriari eta irregulartasun batzuei dagokienez, hiru erregelamendu hauei jarraiki: Kontseiluaren 2988/95 Erregelamendua (EE, Euratom), 1995eko abenduaren 18koa, Europako Erkidegoen finantza-interesak babesteari buruzkoa <sup>(1)</sup>; Kontseiluaren 2185/96 Erregelamendua (EE, Euratom), 1996ko azaroaren 11koa, iruzurren eta irregulartasunen aurka Europako Erkidegoen finantza-interesak babesteko Batzordeak in situ egiten dituen kontrolei eta azterketei buruzkoa <sup>(2)</sup>; eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1073/1999 Erregelamendua (EE, Euratom), 1999ko maiatzaren 25ekoa, iruzurraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoak egiten dituen ikerketei buruzkoa <sup>(3)</sup>.

2. Akordioetan eta kontratuetan, Batzordeari eta Kontuen Auzitegiari esleituko zaio espresuki Erkidegoko funtsak jaso dituzten kontratistei eta azpikontratistei auditoriak egiteko ahalmena, agiriaren bidez edo tokian bertan.

Halaber, Batzordeari espresuki baimena emango zaio tokian bertan kontrolak eta ikuskapenak egiteko, 2185/1996 Erregelamenduan (EE, Euratom) aurreikusitakoari jarraiki.

<sup>1</sup> L 312 EO, 1995.12.23koa, 1.or.

<sup>2</sup> L 292 EO, 1996.11.15ekoa, 2.or.

<sup>3</sup> L 136 EO, 1999.5.31koa, 1. or.

#### 16. artikulua

##### **Ebaluazioa**

1. Batzordeak aldiro-aldiro ikuskatu eta berrikusiko ditu bere programak, eta programazioaren eraginkortasuna eta koherentzia substantziala eta formala ebaluatuko ditu kanpo-ebaluazio independenteen bidez, helburuak lortu diren zehazteko eta egingo diren eragiketak hobetze aldera gomendioak formulatzeko.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren proposamenak kontuan hartuko dira, kanpo-ebaluazio independenteak egiteko.

2. Batzordeak bere ebaluazio-txostenak bidaliko dizkie 17. artikuluan aipatutako Komiteari eta Europako Parlamentuari, informatzeko. Estatu kideek 17. artikuluan, 1. paragrafoan aipatutako Komiteari ebaluazio espezifikoei buruzko eztabaida egitea eskatu ahal izango diote. Emaitzak, ondoren, programa diseinatzeko eta baliabideak esleitzeko erabiliko dira.

3. Batzordeak alderdi interesdun guztiak bilduko ditu, dagokionaren arabera, Erregelamendu honetan aurreikusitako Erkidegoaren laguntza ebaluatzeko fasean.

Estatu kideekin, nazioarteko erakundeekin eta beste organismo batzuekin ebaluazio bateratuak egitea sustatuko da.

### III. TITULUA

#### **AZKEN XEDAPENAK**

#### 17. artikulua

##### **Komitea**

1. Demokraziaren eta Giza Eskubideen Komite batek (hemendik aurrera «Komitea» esango zaio) laguntza emango dio Batzordeari.

2. Paragrafo hau aipatzen den kasuetan, 1999/468/EE Erabakiaren 4. eta 7. artikuluko izango dira aplikatzeokoak, 8. artikuluan xedaturikoa kontuan hartuz. Kontseiluaren 1999/468/EE Erabakiaren 4. artikuluan 3. paragrafoan aurreikusitako epea 30 egunekoa izango da.

3. Komiteak bere barne-araudia onartuko du.

#### 18. artikulua

##### **Urteko txostena**

1. Batzordeak Erregelamendu honen arabera hasitako laguntza-neurrien gauzatzean izandako aurrerapenak aztertuko ditu, eta Europako Parlamentuari eta Kontseiluari neurrien gauzateari eta emaitzei, eta ahal den neurrian laguntzaren ondorio nagusiei buruzko urteko txostena aurkeztuko die. Txosten hori

# *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

Europako Erkidegoaren garapen-politikaren gauzatzeari eta kanpo-laguntzaren aplikazioari buruzko urteko txostenaren parte izango da, bai eta giza eskubideei buruzko EBko urteko txostenaren parte ere.

2. Urteko txostenak hauek bilduko ditu: finantzatutako neurriei buruzko aurreko urteko informazioa; ikuskapenen eta ebaluazioen emaitzak; dagokien bazkideen inplikazioa; eta konpromisoen eta aurrekontu-ordainketen aplikazioa, neurri globalen eta eskualde eta herrialde mailako neurrien arabera nahiz laguntzaren eremuen arabera banatuta. Halaber, Erregelamendu honen helburuen lorpenaren arabera, laguntzaren emaitzak ebaluatuko ditu, ahal den neurrian, haren funtzioaren adierazle espezifikoen eta kuantifikagarrien bidez.

## *19. artikulua*

### **Erreferentziazko finantza-zenbatekoa**

2007-2013 epealdian Erregelamendu hau aplikatzeko erreferentziazko finantza-zenbatekoa 1.104.000 eurokoa izango da. Aurrekontu-agintaritzak 2007-2013 finantza-esparruaren mugen barruan baimenduko ditu urteko kredituak.

## *20. artikulua*

### **Berrikuspena**

2010eko abenduaren 31 baino lehen, Batzordeak txosten bat aurkeztuko die Europako Parlamentuari eta Kontseiluari. Txostenean, Erregelamendu honek lehen hiru urteetan zer-nolako aplikazioa izan duen ebaluatuko da, eta hala badagokio, Erregelamendu honi beharrezko aldaketak egiteko lege-proposamen bat aurkeztuko du.

## *21. artikulua*

### **Indarrean sartzea**

Erabaki hau Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

2007ko urtarrilaren 1etik 2013ko abenduaren 31ra arte aplikatu ahal izango da.

beharrekoak eta Estatu kide bakoitzean zuzenean ezartzeak izango dira.

Bruselan, 2006ko abenduaren 20an

<i>Europako Parlamentuaren izenean Presidentea</i>	<i>Kontseiluaren izenean Presidentea</i>
--	--

J. BORRELL FONTELLES      J. KORKEAOJA

Erregelamendu honetako atal guztiak nahitaez bete

1889/2006/EE Erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 386/1, 2006/12/29koa)